

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko maiatzak 25

Begirale
aritzeko
deialdia

Ana Esther
udaletxeko
artxibaria

Jose Luis
Eraña kirola
lantzen



**Bost atxabaltar alkate
izateko gertu**



Talleres Chapime, S. Coop. Ltda.
Arrasate

CITRÖEN ZX



Ezagutzen duzunean, desberdina dela konturatuko zara. Bere dekorazio bereziak aurreko ateen eta atzekoen estetika azpimarratzen du. Anatra Berdea, Buckingham Urdina, Blason Gorria, Banquise Zuria, pintura metalizatua dohainik da. Citroën ZX Tonic-ek modelo eta kolore aukera zabala du.

Gama altuenetako ezaugarriekin sapai apaingarriak, paratxokea, ateko manila eta ispiluak kotxearen kolorekoak.

Leiho itxiera elektrikoa, itxitura zentralizatua urrunerako kontrolaz eta gainerako guztiak aldamekoaren ispilu eletrikoarekin.

Diesel eta Turbo Deseletan guztiak direkzio lagunduaz.

Citroën ZX Tonic-ek ez du ahazten joera deportiboa: errucra zabalak eta aurrekaldean behelainuarendako argiak ere.

Baina garrantzitsuena, diesel eta gasolinazko motore sendo eta indartsuak: 1.4i gasolina, 1.9 Diesel eta Turbo Diesel. Indarra, zerbitzuak, arintasuna... Guzti hau ardatz autodirekzionalari esker zeharo kontrolatua, Citroën-ek bakarrik erantsi duen aurrerapena ziurtasun eta egonkortasunerako.

Ze eskatuko zenioke alkate berriari?

*Inmaculada Hernandez
(Langilea)*

Kiroletxean gimnasia ematen duen maixu finkoa izatea gura nuke. Honez gain umeentzako parke bat egotea komeniko litzateke.



*Jose Maria Hidalgo Trejo
(Langilea)*

Hormetatik papelak kentzea eskatuko nioke. Honez gain Deba ibaia garbitzea eta herria garbiago mantentzea ere bai.




*Poloni Garcia-Etxabe
(Jubilatua)*

Umeentzako toki batek falta egiten du. Nagusi-ondako tokiak badaudela uste dut.




*Santi Sanz
(Langilea)*

Umeentzako parkeaz gain hurrengo industri-aldea egin behar dutenean ondo pentsatu dezatela non egin, ez behintzat herri erdian.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Herriari

Hainbat komunikabidetan Aretxabaletako HBko zinegotzi batzuk ohar bat sinatu eta zabaldu dute, Eusko Alkartasunari buruzko zenbait iritzirekin.

Urteetan, eta ez gure herrian bakarrik, HBren isolamenduaren aurkako politika bultzatu eta egin dugunok, beraien planteamentu politikoan nolabaiteko bilakaera bat somatzeko gogoz, HBko zinegotzi batzuek aldizkari honetan atera zuten oharrari erantzuteko beharra daukagula uste dugu.

Nabaria da azken urteotan KAS blokeak koalizio barruko edozein mugimendu desegin duela eta, orain dela gutxi, barne eztabaidaren ponentzietan, borroka armatua asumitu du, Euskal Herrian hainbeste min sortarazten duen borroka mota. Ekintza hauek dira edozelako elkarlaguntza eragozten dutenak.

*Zentzu horretan Aretxabaleta, gura den berezitasunak eduki arren, ez da salbuespen bat. HBrengandik urruntzea ezinbestekoa da antolakuntza hau bere barruko mugak gainditzeko gai ez den bitartean; muga horiek gainditu ondoren elkarlaguntza emankor bat etor liteke. Bitartean, herritar askoren eskaera arrazoizkoei erantzunez, Alkatetza eta Udalera hautagai **independienteak** sartzeko ahalegina egin dugu, lan gaitasun frogatua duten hautagaiak.*

Aretxabaletako EA

Coprecin ezbeharra

Pasatu den larunbat goizez berri triste batek astindu zuen Atxabalta. Coprecin bi langilek bizia galdu zuten makina bat konpontzen hasi eta hau gainera jauzi zitzaienean.

Langileak Jesus Madina 58 urtetako arrasatearra eta Felix Urrutia atxabaltarra dira.

Ez dago ziur jakiterik istripua nola gertatu zen, inork ez zuen istripua ikusi eta. Itxura denez bi langileak konpontzen ari ziren granailadora gainera jauzi zitzaien eta Arrasateko Hospitalera heldu baino lehenago hil ziren.

Begirale aritzeko deialdia

Aurten ere Aretxabaletako **Ortzadar** Atsedean Taldeak **Udaleku Irekiak** antolatuko ditu **uztailean**. Bertan 3tik 13 urtera bitartekoek parte hartu ahal izango dute hilaren **3tik 22ra bitartean** (3 astez beraz). Goizean 2 ordu t'erdia izango dira eta arratsaldean beste horrenbeste.

Lan honetan aritu gura duen edozein herritarrentzako ondorengo mezua bidaltzen du Ortzadarrek: "Gurekin batera lan honetan aritu gura baduzu, pasa zaitez Ortzadarreko lokaletik **ekainaren 6tik 16ra** bitartean eta arratsaldeko 5,30etatik 8etara. Aretxabaletako plazan gaude, eta gure **telefonoa 79 01 84** da. Zatoz, lokalean informazio gehiago emango dizugu!!!"

Egunkaria festa

Aurreko Aretxagazetan ere ematen zen Arrasaten ospatu behar den EGUNKARIA EGUNAREN berri. Ekainaren 11n Arrasaten izango da eta diru trukea egiteko Aretxabaletako 20 lagun behar dira. Oraindik oso jende gutxi apuntatu dela esan dute Loramendikoek. Beraz, lanerako gertu egonez gero gerturatu zaitezte lehenbailehen Loramendiko lokalera edo eta 77 09 70 telefonora deitu. Animatu, horrelako egunetan jendearen laguntza beharrezkoa izaten da eta. Gainera kontutan hartu behar da EGUNKARIA oso osoan euskeraz idazten den egunkaria dela eta dituen diru laguntzak urriak direla.

Otala-zelai eguna giro politean ospatu zen



Goizean egon ziren animala jokuekin barre gureine egin zuen jendeak

Eskerrak eguraldiak lagundu zuena Otala-zelai egunean. Bai goizean eta bai arratsaldean lagun mordoxka hurbildu zen harizpera.

Goizean jendeak makina bat barre egin zuen animala jokuekin eta bertsoari ere bertsolariek ere bertso politik eskaini zituzten.

Arratsaldean Loramendi dantza taldeko dantzari gaztetxoek eta Soloik-Solo gazte taldeak antolatutako jokuek giro ezin hobea sortu zuten.


Ezin alde batera utzi herriko trikitilarien lana. Egun osoan zehar jo ta ke aritu ziren panderoa eta trikitia joaz.

Ludoteka berriz ere zabalik dago

Hilabete inguru itxita egon ondoren, maiatzaren 17an zabaldu zen berriz ere ludoteka. Oraingo honetan ere umeez hain ondo ezagutzen duten **Jasone Garcia-Etxabe** dago bertan.

Ordutegia lehengoaren berdina da: astean zehar arratsaldeko 5etatik 8etara eta zapatuetan 11etatik ordu batetara. Nobedaderik ere bada ludotekan, joku berri mordoxka dago eta beraz haurrak izango dute non arratsaldea pasatu eta non dibertitu. Gainera haur bakoitzak gura duen egunetan joan ahal izango du eta ez lehen bezala adinaren arabera egun konkretu batean.

Gaztetxoek atea zabalik dituzte.



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

CONSTRULAN ARQUERO ANIAK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11
Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

Pleno berezia: Udalak

4 hitzarmen onartu ditu

Maiatzaren 22an pleno berezia egin zen udaletxean. Orain dagoen gobernuak erabakiak hartzeko egin duen azkena da. Beste bat egingo da baina hau aktak onartzeko izango da.

Gai zerrenda honako hau zen:

- 1.- Loramendi K.E.rekin hitzarmena
- 2.- Kirola eta euskerari buruzko hitzarmena
- 3.- **Aretxagazetarekin hitzarmena**
- 4.- Pausokarekin hitzarmena
- 5.- Aurtengo aurrekontuak
- 6.- ASESako Udal akzioen salmenta
- 7.- Ur partzuergoko estatutuen aldaketa.
- 8.- Udaletxeko langileen soldata igoera.
- 9.- Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan sartzea

Hasieran aipatzen diren lau hitzarmenei dagokienez denak onartu ziren. Berri pozgarria da, talde bakoitzak eginiko eskabideak %100ean onartuak izatea. Esan beharra dago 4 hitzarmen hauek sinatzerako orduan zinegotzi guztiak ados azaldu zirela.

Aurtengo aurrekontuak ere onartu ziren. Alor honetan esan behar 8 zinegotzien baiezkotuekin onartu zirela, EAko lau eta HBko beste lau zinegotziren aldeko botoekin. EAJko bi zinegotziak abstenitu egin ziren eta PSE-EEko biak aurka azaldu ziren.

ASESAko Udal akzioen salmenta onartu egin zen. Bestalde langileen soldatari dagokionez, iaz igo ez bazitzairen ere, aurtengo urterako % 3,5 igotzea onartu zen.

65 urtetik gorakoentzak bidaiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 65 urtetik gorakoentzat bidai bat antolatu du. Bidaia bost egunetakoa da eta pentsio osokoa gainera. Autobusez izango da bidaia eta ondorengo herriak bisitatuko dira: Salamanca, Caceres, Plasencia, Trujillo, Guadalupe, Almendralejo, Mérida, Alcantara, Lagartera, Oropesa eta Talavera de la Reina.

Irteera Donostiatik izango da.

Betebeharreko baldintza garrantzitsua 65 urtetik gorakoa eta pentsioduna izatea da.

Prezioa, hilero 37.000 pezetatik gorako dirusarrerak dituztenentzat, 24.850 pezetetakoa da, eta hilero 37.000 pezetetako dirusarrera baino txikiagoa dutenentzat 14.850 pezetetakoa.

Informazio gehiago gura izan ezkerreko deitu 900-43-43-43 telefonora edo eta eskaerak egiteko "Eroski Bidaiak"-era zuzendu lehenbailehen.

Gutxitu fisikoendako laguntzak

Elbarrituei zuzendutako laguntza indibidualak eskatzeko epea zabalik dago. Eskatu daitezkeen laguntzak honako hauek dira:

- Asistentzia Espezializatu (Erakunde Tratamendua)

- Laguntza Teknikoak (aulki elektrikoak, etxera hurbiltzeko erraztasuna, altzari egokiak, garbigela eta dutxarako aksezorioak eta entzumenerako protesiak).

- Aparteko Laguntzak premia larriko egoeretan.

Laguntza hauek eskatzeko epea uztailaren 15ean bukatuko da eta udaletxeko Gizarte Laguntzai-learengana jo beharko da.

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

FOTO

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Euskeraren egunean giro polita egon zen herrian. Egunean zehar ekintza politikak egin ziren, gazta eta sagardo degustazioa, dantzak, emakumeen bolo txapelketa, e.a. Hala ere, esan beharra dago gauz jende gehiago hurbildu zela egunez baino.



Aretxabaletan bata eta gertu bestea, Aramaion, euskal kulturaren bi paradigma dauzkagu. Biek daukate hainbat alde antzekoak: 36ko gerra aurrean utzi zizkiguten euren lanak, gaur egun, oraindik, oso ezagunak ez badira ere; euren onenak emateko zirela agian, joan zitzaizkigun Josafateko zelaira; biak, bakoitza bere

“Euskeraren eguna dela eta”




Julen Zuazabeitia

arloan, betidanik gizasemeok dezifratzen saiatu garen bi zutabeak aztertzen ahalgindu ziren: espirituarena eta materiarena alegia. Loramendi eta Gabirel Jauregiri buruz ari natzaizue.

Olerkariak, Loramendik, beren sentimenduek destilatuak edertasun paregabeko irakurketa anitz izan ditzaketen ekuazioetan formulatu zizkigun. Hor bestela gizakiaren destituari buruz “Otoi adiskide” olerkian planteatu zituen inkognitak.

Zientzilariak, Gabirel Jauregik, “Kimia” (Kimika) eta “Pisia” (Fisika) izeneko bere obretan, orduko hizkera literarioan musikatu zituen materia eta energiari buruzko legeak eta ezagupenak. Adibidez, molekulen mugimendua ulertarazteko, neska-mutil gazteen dantzen alegoria bitxi batez baliatzen da.

Zapatuan Aretxabaletan “Euskararen Eguna” ospatu genuela eta, pentsamendu bat etorri zitzaidan burura: atzoko moduan gaur ere, eta inguruak jarritako traba guztien gainetik, eguneroko jardunean euskara bitarteko izateari eutsi dioten bi gizon hauei eta beste adibide askori esker irauten duela guregan esperantza bat.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**MAITE
ILEAPAINDEGIA**

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ
jatetxea**



ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Ana Esther: Artxiboan dagoen dokumentu zaharrena 1498. urtekoa da

Udaletxeko ganbaran, goren gorenean han egoten da Ana Esther artxibo lanak egiten. Kasik bi urte daruma udaletxeko dokumentuak klasi-fikatzen eta ordenatzen. Egunen batetan bertara igotzen baduzue, bata txuri batekin jantzirik ikusiko duzue. Baina ez zaitezte harritu, artxibari asko horrela jantzirik ibiltzen da eta. *“Zoritxarrez artxiboan zikinkeri asko dago, hautsa, e.a. horregatik bata txuria jazten dut.”*

Hala ere, artxibo lanetan aritzen den askok guanteak eta maskarila ere jazten dutela esan digu, berak ordea bata txuria bakarrik jazten du.

Askok artxibo lan hori zer den galdetuko duzue. Ana Estherrek esaterako, udaletxeko dokumentu guztiak klasifikatu eta ordenatu eta arlo desberdinen arabera sailkatzen ditu. Horrela udaletxeko langile batek edo edozein herritarrek dokumenturen bat gura duenean, lan errazagoa izango du. Honez gain artxibo batek udaletxean betetzen duen funtzioa, historian zehar udal gestioan gertatu denari buruzko informazioa ematea da. **Edozein herritarrek du artxiboetan dauden agiri eta dokumentuak ikusteko eskubidea.**

Artxiboan udaletxean eginiko dokumentuak edo eta hona bialdutakoak soilik daude, espedienteak, akta liburuak, udal padroia, proiektuak, obrak, aurrekontuak, kontuak, zergak, e.a.

Artxiboan dagoen dokumenturik zaharrena 1498. urtekoa da. Eta dokumentu politena aldiz, Felipe IIak Leintz Bailarari Oñatiko kondearen kontra egiteko, eginiko agiria. Dokumentu hau

Ana Esther Gomez atxabaltarrak artxibo lanak egiten ditu udaletxean. Historia eta geografia karrera ikasi zuen eta bi urtetako artxibagintza masterra egina dauka.



pergaminoan idatzia dago. 1497. urtean idazten hasi eta 1556. urtean bukatutakoa da. **Oso txukun idatzita egoteaz gain lehen orrian eskuz margotutako miniatura zoragarri bat dauka.** Badago beraz gauza bitxirik udaletxeko artxiboan.

“Udal artxibo bat Udala sortzen den momentutik sortzen da. Dokumentuak egiten diren momentutik hauek gorde eta zaindu beharra dago. Artxibo batek lehenago zer gertatu den jakiteko, momentu honetan zer gertatzen ari den jakiteko eta hurrengo belaunaldiak oraingo eta lehenagoko gauzen berri jakiteko balio du. Oso informazio baliotsua dago artxibo batean baina ondo sailkatua eta ordenatua egotea beharrezkoa

da. Guzti honek lan haundia eta dedikazio haundia suposatzen du”.

Artxiboa 3 sailetan banatuta dago, Udala 3 sailetan banatuta dagoen bezala. Alde batetik, gobernuko atala dago (akta liburuak, alkatearen dekretuak...), bestetik idazkaritza (estadistikak, Ohirigintza, kultura...) eta hirugarrenik hazienda, (presupostuak, kontuak...)

Ana Estherren ustetan, **udaletxeko ganbara ez da artxiborako toki egokia.** *“Hezetasun haundia dago eta ura ere sartzen da. Udan ganbaran bero haundia egiten du eta neguan berriz hotz. Hozbero aldaketa honek eta hezetasunak mikro organismoak sortzen ditu eta hauek papera ondatu egiten dute”.*

Hala ere oraindik lan asko dago egiteko. Aurrera begira artxiboa informatizatzea komeniko litzateke honek lana asko erraztuko luke eta.

URBALTZ



TABERNA

Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA



J. ALTUNA Zurgindegia

Sukalderako
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3
79 72 55 Aretxabaleta

Izozkitekiki-Gozotegi IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

BOST ALKATEGAI HAUTESKUNDEETARAKO

Maiatzaren 28a, datozen lau urteetarako Udal berria aukeratzeko eguna izango da. Aspalditxoan jendearen ahotan dabilen data da. Nor izango dugu alkate berria? Nola banatuko dira 13 zinegotziak? Hau jakiteko egunerarte itxoin beharko dugu.

Azkenengo hauteskundeetan ondorengoak izan ziren emaitzak: EAK lau zinegotzi; HBk beste lau; EAJak hiru eta PSE-EEK bi. Ale honetan legealdi berrirako alderdi bakoitzeko alkategaia eta aurkeztu duten programa azaltzen da. Nobedade bezala aipatu behar aurreko legealdiko lau alderdiez gain IU-EB lehenengo aldiz aurkeztu dela eta EAJ eta EAK programa bateratua aurkeztu dutela.



EA

Izena: Adolfo Etxebarria

Adina: 50 urte

Maixu industrialia da eta Ederlanen ari da lanean, mekanizatuan. Alkategairako lehen aldiz aurkeztu da.

Afizioak: Musika eta kirola

Bost zinegotzi ateratzeko asmoa dugu.

Herritarrek udaletzeko funtzionamendua kritikatzan dute, hori dela eta ze asmo dituzue?

Herritarren eskakizunaren aurrean zerbitzu eraginkorrago eta azkarragoa lortu gura dugu. Horregatik, gestio tramiteak gutxitu eta herritarren zerbitzurako bakarrik izango den leiatila bat zabalduz. Honez gain eskainitako zerbitzuaren eta ordaindu beharrekoaren arteko erlazioa bidezkoa izan dadila.

Zer eskaintzen digu EAK hurrengo legealdirako?

Ekonomia eta antolakuntza:

- Udala herritarrengana hurbiltzeko sortuko den sistema.
- Enpleguari dagokionez, ekimen berriak bultzatzea eta langabetuen formaziorako programen jarraipena.

Hirigintza:

- Herriaren antolakuntza herritarren gehiengoak aukeratu behar du, etxebizitzetarako garrantzia berezia eskainiz.
- Debara egiten diren isurketak garbitzeko inbertsioak bideratuko dira.
- Taberna, industria eta trafikoaren zarataren kontrako neurriak hartuko dira eta lorategiak gehitu.
- Batez ere, Araba Ibilbidean eta Santa Kurtzen ur-sarea hobetuko da.

Auzoak:

- Ur hornidura lanak bukatu. Urbanizazio txikiak egingo dira bertakoei bizitza kalitatea hobetzeko.

Irakaskuntza:

- Ikastetxe guztietan irakaskuntzaren kalitatea hobetu.

Gizartea:


- Beharrik haundiena dutenei laguntzen jarriko ditugu indarrak gehienak, nagusiei, langabetuei eta behartsuenei.
- Behar larrian dauden munduko beste herri batzuk ez ditugu ahaztu behar.

Euskera:

- Euskera bultzatzen duten herriko elkarteekin erantzunkizuna konpartitu eta ekintza desberdinak bultzatu.

Kultura eta kirola:

- Zاراia zinemaren berrikuntza, bertan kultur eta musika ekintzak indartu gazteentzat batez ere.
- Ibarrako lanak bukatu eta Kirol Udal Patronatu bat sortu.



Izena: Anjel Bergaretxe
Adina: 33 urte
 Injeneri teknikoa da eta momentu honetan Coprecin ari da lanean. Alkategairako lehen aldiz aurkezten da.
Afizioak: Mendira joan, irakurri, lagunekin bildu, e.a.
 Bost zinegotzi ateratzea pentsatzen dugu.

Herritarrek udaletxeko funtzionamedua kritikatzten dute, hori dela eta ze asmo dituzue?

Momentu honetan, Aldunditik heltzeaz dagoen eta Udalaren antolaketa ikertu eta zehaztuko duen lan baten zai gaude. Gero, horren arabera (eta bertatik etorritakoa aholkua besterik ez dela kontutan hartuz) lanpostuen deskribapena eta balorazioa egingo da.

Zer eskaintzen digu HBk hurrengo legealdirako?

- *Udal irekia , herritarrari ateak zabalduko dizkiona.*
- *Inbertsioek orain arte izan duten baino jarraipen zorrotzagoa izan dezatela.*

Hirigintza:

- Arau subsidiarioen garapen eta onarpena.
- Etxebizitzetarako dagokienez 30. gunea, (IBARRA BERRI) ahalik eta laisterren bukatu.
- Hutsik dauden etxebizitzak bete daitezen ahalegindu, (etxe hutsei zergak haundituz, e.a.)

Kultura:

- Kultura eta kirolaren ardurak banatu, arlo bakoitzerako teknikari bat jarritz.
- Zine aretoa aprobetxatuz, kultur etxe integrala egitea proposatzen dugu (bideo gela, ekintza-aretoa, eskenatokia, e.a.)
- Maria Worth herriarekin eginiko hitzarmenak herrian inongo isladarik izan ez duenez, 3. munduko herriren batekin edo eta iparralde-

koren batekin hitzarmen aberasgarriak egitea proposatzen dugu.

Gazteria:

- Gazteria batzorde berria sortzearen aldekoak gara eta batzorde honek informazio bulego bat sortu beharko luke, (lana, insumisioa, bidai, ikasketetarako diru laguntzak, eta interesgarriak diren gaiei buruz informazioa emango duena).

Euskara:

- Hurrengo lau urteetan Udalaren barruan eguneroko lanean euskara erabiltzera iritsi behar gara, trebakuntza plana indartuz.

Baserri auzoak:

- Lehentasuna, Arkarazora eta Boliñara ur sarea hedatzea, horrela auzo guztiak sare nagusitik horniturik geratuz.
- Saneamendu sarearekin jarraitu.
- Egiteko geratzen diren bideekin amaitu.



TABERNA-BERRI

JATETXEA

Durana, 26
 Tfnoa: 79 20 67
 ARETXABALETA

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”
 Telefonoa: 79 62 80
 ARETXABALETA (GIPUZKOA)



**EAJ
PNV**

Izena: Juan Antonio Rodrigez
Adina: 48 urte
 Ingieneri teknikoa da eta Ederlaren, agrupazioan, automozioan lan egiten du.
 Alkategairako lehen aldiz aurkeztzen da.
Afizioak: Golf-a.
 Bost zinegotzi ateratzea pentsatzen dugu.

Herritarrek udaletxeko funtzionamendua kritikatzten dute, hori dela eta ze asmo dituzue?

Barne antolakuntzan gestiorako eredu berri bat ezarriko dugu, herritarren keaxak konponduko dituen eta udaletxeko langilegoarengan iluzioa berpizteko. Udalaren proiektu eta ekintzekin jendea jakinean egon dadin sistema bat eratuko dugu.

Zer eskaintzen digu EAJ-PNVk hurrengo legealdirako?

Udalaren antolakuntza:

- Gestio eragile bat bultzatu, langileengan ilusioa suspertu, tramiteak gutxitu eta herritarren eskaerei erantzun azkarragoa emateko leiatila bakarria ezarri.
- Egiten den gastoa ematen den zerbitzuarekin zuzenean loturik egon behar da, burokrasia gutxituz eta area desberdinetan kontrola ezarritz.

Hezkuntza:

- kalitatea hobetzeko proiektuak bultzatu gizarte integratuago bat lortzeko, ikastetxeei laguntza emanaz.

Gizarte zerbitzuak:

- Harrerako etxebizitzak jartzearen alde egin.
- Hirugarren munduaren garapenerako laguntzak bideratu.
- Hirugarren adineko pertsonendako eguneko zentru bat jarri.

Euskara:

- Euskeraren normalizazioa bultzatu, kirol munduan, aisialdian eta eguneroko bizitzan euskeraren erabilera indartu.

Kultura eta kirola:

- Udalak azpiegiturak ereikiko ditu gestiorako patronatu bat sortuz.
- Gazteek aisialdi sortzailea eta konstruktiboa garatu dezaten laguntzak eta azpiegiturak bideratu. Zaraia zinema antzoki ere bihurtuko dugu bere erabilera indartuz.


Langabezia:

- Lanpostu berrien sortzea, promotore berriei finantzaketa lortzen lagundu. Langabetuentzat, orientazio eta gaikuntza egitarauak bultzatu.
- Europa eta Euskal Herriaren komunikatzeko beharrezkoak ditugun azpiegiturak gauzatu daitezten eskatu, ingurugiroa errespetatuz.
- Herri barruan berdeguneak, jardin berriak eta jolastokiak jarri.



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala
 Basabe Poligonoa, A-1-3
 Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86
 ARETXABALETA



**PSE
EE**

Izena: Iñaki Pierruges

Adina: 38 urte

Soziologia ikasten ari da eta Ederlanen lan egiten du.

Lehen aldiz aurkezten da alkate-gairako.

Afizioak: Irakurtzea.

Hiru zinegotzi ateratzea pentsatzen dugu.

Herritarrek udaletxeko funtzionamendua kritikatzan dute, hori dela eta ze asmo dituzue?

Udaletxean efikazia gehiago behar da, kalitatea eskaini behar zaie herritarrei eta beharbada momentu honetan dagoen pertsona kopurua baino gutxiagorekin lan egin daiteke.

Zer eskaintzen digu PSE-EEk hurrengo legealdirako?

Hirigintza:

- Industrialdearentzat guner berri bat.
- Enplegua gehitzeko promozio industrialia.
- Babes ofizialeko 200 etxebizitza planifikatzea.
- Ibarra aldean kirol ekipamenduarekin amaitzea.
- Zabor biltegiaren hedakuntza.
- Ibaia bideratzen bukatu.
- Lausitta eta Murubide arteko loturaren proiektua burutu.
- Deba ibaiaren plan integrala.
- Udalerri osorako ur-zikinen garbiketa sistema ezarri.
- Komunikazio bideen hobekuntza.
- Iturbe inguruan, merkatu, kultura, musika eta gazteriari zuzendutako eraikuntza publikoa egitea.
- Herriko Plaza 1 eraikuntza, giza zerbitzu eta atzeratuentzat egokitzea.
- Eraikuntza eta etxe-horma zaharrak zaharberitzea.

Kultura:

- Zinema errehabilitatzea ikuskizun eta antzerki emanaldietarako.
- Galartza Dorretxean Leintz Bailarako artxibo historikoa antolatzea.

Ingurugiroa:

- Naturarekin paktua: Ingurugiroari buruzko ordenantza.
- "Aisi ortuentzat" lurra eratzea.
- Urkulura heltzeko garraio antolatua. Urkulura heltzen diren kotxeen kopurua erregulatzea nahi dugu.
- Maltzaga-Urbina bide azkarraren alde egitea.
- Baserri auzoak oinarrizko zerbitzuez hornitzea.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



KELER




El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65



Berdeak
ia

IU
EB

Izena: Tomas Fernandez
Adina: 36 urte
Ruberlan kooperatiban lan egiten du.
Lehen aldiz aurkeztzen da alkategairako.
Afizioak: Zinea, musika, e.a.
Bi zinegotzi ateratzea pentsatzen dugu.

Herritarrek udaletxeko funtzionamendua kritikatzan dute, hori dela eta ze asmo dituzue?

Udaletxeko barne funtzionamendua ez dugu hain ondo ezagutzen. Lehenengo ondo ezagutu beharko genuke eta gero lanari ekin.

Zer eskaintzen digu IU-EBk hurrengo legealdirako?

Hirigintza eta ingurugiroa:

- Espekulazioaren kontrako politika. Udal zerga baten ezarpena bi eta bi baino etxebizitza gehiago dituztenei.
- Durana kalea oinezkoendako bakarrik erabilgarria izatea.
- Bizikletendako bidea bultzatu.
- Ingurugiroko kontzejalia bat sortu.
- Irakaskuntza zentruetan ingurugiroaren heziketarako programak bultzatu.
- Ur kutsatuen berreskurapena, Deba ibaia esaterako.
- Maltzaga-Urbinaren inguruan, lehengo infra-estruturara hobetu.

Ongizate eta osasuna:

- Hirugaren adinekoendako etxez-etxeko laguntza garatu.
- Droga eta ihesa ekiditzeko kanpaina hezitzaile eta informatiboak egin.

Enplegua eta garapen ekonomikoa:

- Lanpostu berriak sortzeko ideien lehiaketak.
- Industri alorra bultzatuko duen planak egin,

sindikatu eta beste entitate batzuekin batera.

- Forestalizazio planak, honekin ere enplegua bultzatuz.
- Autoenplegu eta kooperatibei laguntza eman.

Heziketa eta kultura:

- Zinema zabaldu.
- Gipuzkoako plazan txikiendako parke bat egin.
- Haurtzaindegien arazoak konponduko dituzten irtenbideak bultzatu.

Gizartea:

- Herritarren partaidetza: Erabakitze gai garrantzitsuetan referendun-a egingo da.
- Insumisioa eta objetoretza bultzatuko duen zerbitzua martxan jarri.
- Emakumearen kontzejalia sortu.

Euskera:

- Komunikabide lokalak bultzatu Aretxagazeta esaterako.



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

GEMES

EPILATERM
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta




Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Azken urteetan kirol arloa lantzen aritu den Alfredo Meabek utzi egin dio kiroletxean egiten zuen lanari.

Orain Jose Luis Eraña hasi da Alfredoren postua betetzen baina berak ere ez daki ziur noiz arte jarraituko duen.

Kirolaren inguruko hainbat xehetasun jakin guran Jose Luisekin elkarrizketa bat izan dugu.



Jose Luis Eraña

“Hurrengo politikariei kirol arloaz lehenbailehen arduratu daitezten eskatuko nieke”

• Orain artean zertan ibili zara?

Arrasateko polikiroldegian teknikari moduan aritu naiz eta Almenen gimnaskiako irakasle moduan. Orain Arrasaten gimnasia klaseak ematen ditut.

• Zela ikusten duzu kiroletxean gimnasia klaseak ematea?

Aukera ona izan daiteke hurrengo urtean lanean jarraitzeko.

• Zein da zure lana kiroletxean?

Hirugarren adinekoei mantentzen mendurako gimnasia klaseak ematea

eta baita ATZEGIkoei ere. Honez gain mankomunidadeko kirol ekintzak (olinpiakak) koordinatu eta eskolatik kanpoko kirol iharduerei amaiera ematea.

• Gimnasia klaseetan zer motako ariketak egiten dituzue?

Denetarik, indarra lantzeko ariketak, koordinazioa, arintasuna lantzekoak, e.a.

• Atxabaltan kirolaren inguruan ze falta dela uste duzu?

Kirolaren inguruan aktibitate gehiago antolatu behako lirateke. Honez gain kirol mailan giroa falta dela nabaria da. Animazioa eman behar zaio kirolari. Ibarren egingo diren instalakuntzetan konplejo polita sortuko da, eta honek kirola asko bultzatuko du.

• Ze antolatu beharko litzateke?

Idea politen bat. Agian txapelketa gehiago eta kursilo gehiago, honek kirol arloa dinamizatu eta faltan ikusten dudana kirol arloko giro hori sortuko luke. Kursilo berrien aurrean jendea asko animatzen dela uste dut.

• Ze hobetu beharko litzateke?

Kirolari garratzi gehiago eman beharko litzaioke. Kiroletxeko gimnasia txikiegia dela uste dut eta instalakuntza gehiago behar dira.

• Herrian kirola bultzatzeko zer egingo zenuke?

Kursiloak berrizten joan. Politiko berriei kirol arloaz lehenbailehen arduratzeko eskatuko nieke. Momentu honetan “desmadre” haundia dago. Guztia berehala finkatzea litzateke egokiena, irailan guztiaz serio eta ondo hasteko. Nire ustez kirol arloaz bakarrik arduratuko den teknikaria behar da.

Pedro Guenetxeari lehenengo memoriala

Pedro Guenetxea Txirrindulari munduan lan asko eginiko gizona izan da. Dorletako Ama Txirrindulari eskolako fundatzaileetarikoa bat izan zen.

Gaztetan txirrindularia omen zen eta Asier Guenetxea, semea bezala, sprint-ean ona.

Datorren igandean, maiatzaren 28an txirrindulari karrera izango da Atxabaltan eta egun honetan Pedro Guenetxeari lehenengo memoriala egingo zaio.

Bigarren mailako kadeetee korrituko dute eta goizeko 10etan ekingo da karrera Durana kalean.

IZOTZ TABERNA


Mitarte, 16
☎ 79 73 65

ANGELINES



Autozerbitzua


Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak

Inpresoak

Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41



Almeneko 5. mailakoek oi duten lez irteera egin dute Zuazara. Eguraldiak gehiegi lagundu ez badie ere tremendo pasatu dute.



Aitor Bolinaga, Unai Iruzubieta eta Nerea Etxeberria Zuazan egon diren hiru atxabaltar

ZUAZA

Zuazako loreak
 mugitzen ditu haizeak
 eta freskatu hango biztanleak,
 bertako isiltasuna
 denon lasaitasuna
 ondoren dator nire puztasuna.
 Ezarriak pisha,
 untxiak saltoko,
 gu berriaz frakamotzetan dardarka.
 Uretan iruzarriko saltza
 han gabiltza plisti-plasta!
 surf egin edo arrautza.
 Bagator, Aretxabaletara
 gure aldizkarian jartzera
 gogozen denok bertara!!!

Aitor Bolinaga

ZUAZA


KAIKO ARETXAGAZETAKO IRAKURLEOK,
 KI ALTIENKO IKASLE BAT KAIZ, ETA
 ZUAZARI BURUZ HITZEGITERA KATORKIZUE.
 ZUAZA IRLA BAT DA, IRLA TXIKI
 BAT, BAINA EZ DA ITSASOKO IRLA HORIEN
 MODUKOA, ZUAZA, ZADORRAKO URTEGIAK
 IRKURATZEN DU. KAIKZ ETA EGURALDI
 TXARRA EGIN KIK OSO OKDO PASATU
 KIEN. URETAKO EKINTZAK EGIN GENUEN
 PIRAGUISMO, PEDALO, BELA, ARRAUNAK,
 SURF... HORIETATIK KIK BI EGIN KITUEN
 BELA ETA PEDALO. BAIKATZEKO
 AIKERA ERE BAZEOEN BAINA BETI
 URETAKO TXALEKOAZ.
 KOIZBAIT JOATEKO AIKERA BADIUZUE
 JOANKAITZETE! EDERTO PASAKO
 DIZUE.

NEREA ETXEBERRIA



MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
 Tfnoa: 77 11 75
 ARETXABALETA

 **Zenbaki**
 Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
 Tfnoak: 79 88 75
 79 75 99

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
 Tfnoa: 79 98 74
 ARETXABALETA

Artano Taberna

Herriko Enparantza
 ARETXABALETA

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 32 34

SHOT! grabaketak S.L.
 Araba Etorbidea, 3-2. solairua
 Eskatu Pabiloia
 ☎ 943-79 37 51

SHOT!
 grabaciones

ARRASATE

Gipuzkoa



Azatzako eskola. Arbelean idatzirik honako hau jartzen du:
 “*Las partes de una planta*
Un vegetal consta de varias partes algunas de las cuales son:
La raiz, el tallo, las hojas, las flores y los frutos.”



1946. urte inguruan Azatzako eskolan zebitzen ikasle danak argazkia atera zuten eskolaren aurrekaldean. Garai haietan Larriño, Azatza eta Arientzako neska-mutilak Azatzako eskolara joaten ziren ikastera. Gainera adin desberdinetakoek denek batera ikasten zuten. Maistrak kanpotik etorritakoak ziren normalean, asko eta asko Espainiatik. Kasu honetan euskalduna zen maistra, **Idiazabalgoa** hain zuzen ere, **Pepita Lardizabal**.

Orduan gaur egungo oinetakorik ez zegoenez, albarkak sarri jazten ziren. Kaminoa Azatzan bakarrik zegoen eta lokatz arteko bideetatik ibili behar izaten zen. Mutilek 15 urte artean fraka motzak erabiltzen zituzten.

Goiko lerroan: **Ines Iarza, Glori Lasagabaster, Mari Angeles Etxebarria, Maritxu Okina, Jesusa Urrutia, Arantxa Abasolo, Pepita Lardizabal (maistra), Juli Ayastuy, Arantxa Urrutia, Mari Angeles Uribetxebarria, Patxi Zubizarreta, Jose Kortabarria, Jose Benito Ayastuy.**

Erdiko lerroan: **Espe Azkoaga, Miren Errasti, Maria Luisa Okaranza, Matilde Bengoa, Maritxu Eraña, Anton Etxebarria, Jose Luis Güemes, Felix Eraña, Timoteo Bengoa, Iñaki Arenaza, Pedro Uribetxebarria, Carlos Eraña, Santiago Ayastuy.**

Beheko Lerroan: **Begoña Ayastuy, Pilar Etxebarriarteun, Luisita Aparicio, Lurdes, Eduardo Urkia, Felisa Okaranza, Anita Etxebarriarteun, Mari Bengoa, Jose Mari Arenaza, Sabino Etxebarriarteun, Jabier Ayastuy, Jose Eraña, Jabier Uribetxebarria.**

Harrapau eta pasau



J.J. Aretxaga

(Hauteskunde kanpainen badute euren alde ona be, politikoak eskean ikustea.)

Abenturak gazteen kontuak direla pentsetan dugu, baina ez da beti hola izaten. Aprilaren 25ean **Jose Benito Ayastuik**, **Eugenio Zubiak** eta Eskoriatzako **Jose Pagaldaik** Orreagatik urten zuten Santiagora ailegetako asmoarekin eta maiatzaren 22an heldu ziren Obradoiro Plazara. Zorionak.

Hala ta be, atzetik datozen gazteek laster hartuko digute aurrea. Ojala-zelai egunean, arratsaldean, **Iragartze Okaranza** eta **Ekaitz Filarmendi** ibili ziren aurkezpen lanak egiten. Estiloa oraindik dexente landu beharra daukate, baina denborarekin...

Zaharrekin hasi, gazteekin jarraitu eta orain umeei dagokie protagonismoa. Maiatzaren 17an zabaldu zen barriro ludoteka. Jolas barriak ei daude gainera. Arduraduna, barrez, lehengoa, **Jasone Garcia-etxabe**. Baina badira umetzen diren nagusiak be. Herriko euskaltegiaren 10.

urteurrena dela ta, astelehenean **Koldo Ameztio** ipuin kontalaria izan zen euskaltegian. Kurioasoa nagusiak, umeak letxe, ipuinak entzuten ikustea.

Eta badaude gauza batzuk edaderik ez daukatenak. Zapatuan **Loramendik** antolatutako Euskararen Eguna ospatu genuen. Hemen ezin dena kontatu eta izen batzuk derrigorrean aitatu behar direnez, selekzinotxo egin dut. Lehenengo **Lorentzo** (euskixa). Gero goizean egin zen kalejira berezia. Kamioiaren gainean joan ziren herriko trikitilari, bertsolari eta txalapartariak. Eta konsagratutako bertsolarien artean Kurtzebarri Eskolako Bertso Eskolako lau partaidek be jardun zuten: **Kepa Errasti**, **Maidor Azkorbe**, **Araitz Garai** eta **Nerea Lete**. Eguneko momenturik politenetakoa arratsaldeko bolo txapelketa izan zen. Emakumeen arteko bolo txapelketa, jakina. Bolalekua jendez gainezka zegoen, gehienak emakumezkoak. 29 emakumak parte hartu zuten eta irabazlea **Anparo Errasti** izan zen. Eta onena atzenerako itxi dut, gabeko giroa. Mundiala.. Neuk be dantzan egin nuen...

Telebisioan teledenda dagoen moduan guk herri denda daukagu. Honezkero jakinean egongo zarete Iñurategi anaiek Cho Oyura eta Lhotsera igoteko asmoa daukatela aurrean. Espedizioa inportantea da eta geuk be laguntzeko aukera daukagu. Kamisetak betiko lekuan eukiko dituzue salgai, Murruxon. Aurtengoak gainera dotoreak dira.

A R E T X A Z O K A

LANA

- REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Astean 2 ordu. Interesatuok deitu 79 83 90 telefonora. (8etatik-10etara ilunkaran)

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

- Komunikazio enpresa garratzitsu batek bere **komertzio sailerako pertsonala behar du**. Eskatzen diren baldintzak 20 urtetik gora edukitzea eta **kotxea izatea** da. Deba Garaian eta Deba Behean lan egiteko. Interesatuok ondorengo telefonora deitu: 77 34 97

ETXEBIZITZA

- Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11n. Interesatuok deitu 79 47 62 telefonora.

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kaleran dago.

Telefonia: 79 01 17

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxalbaltan. Bere telefonoa ondorengoa da: 79 49 70

SALMENTA

- Sukaldeko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke. 79 01 66 (eguerdian eta gauez, Arantzazu)

- Vespa beltza salgai dago. SS-W. Tfnoa: 79 46 98

Argelia Lopez

“Atxabaltara etorri nintzenean oso herri txikia zen”



Oraingo honetan “Lie” dendako Argeliarengana jo dugu. Argelia izatez Burgoskoa da baina badira 41 urte Atxabaltara etorri zena. Dendari lana betidanik izan du gustoko.

- Atxabaltara bizitzera etorri zinenean nolakoa zen gure herria?

Oso herri txikia zen eta denok elkar ezagutzen genuen.

- Dendaria izan ez bazina ze izatea gustatuko litzaizuke?

Beti gustatu izan zait dendari lana.

- Perfumea ala kolonia saltzen da gehiago?

Emakumezkoetan perfumea eta gizonezkoetan berriz kolonia.

- Gizonek ze erregalu erosten diote normalean emakumeei?

Normalean perfumeak.

- Eta emakumeek gizonei?

Korbatak eta zinturoiak.

- Jendea asko makilatzen dela uste duzu?

Bai, nik uste dut baietz. Jendeak aurpegia asko zaintzen du.

- Atxabaltarrok opari asko egiten ditugu?

Bai, egun berezietan badago erregaluak egiteko ohitura.

- Bozkatuko duzu hauteskundeetan? Bai.

- Ze eskatuko zenioke alkate berriari?

Durana kaleko bidea lehebailehen konpondu dezala eta zineari irtenbide bat eman diezaiola.

- Ze erregalatu zenion zure gizonari azkenego aldiz?

Erloju bat.

- Telebistan ze programa duzu gustoko?

Ez dut telebista asko ikusten.

- Mezetara joateko ohiturarik bai?

Bai, ahal badut behintzat domeketan joaten naiz.

- Atxabaltako zein toki duzu gustoko?

Orokorrean herria polita dela iruditzen zait, estetika polita dauka.

- Lore naturalak ala artifizialak gurago?

Naturalak, eta lore berezi bezala larrosa.

- Trikitilariak ala pasodobleak?

Trikitilariak, alaiagoak dira eta.

- Eta bukatzeko, zelakoa da zure izakera bi hitzetan esanda?

Lotsatia eta berba gutxikoa.



Arantza Eguren
dugu aurreko alean saritu suertatu zena.
On egin!!!

Animatu zaitetzte eta idatzi.

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Mendiola Erretegian** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu.

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.

ESKORIATZA **BAZKARI**
ETA
AFARIAK

Tfno 714345 **MENDIOLA** **ERRETEGIA**

ORDUTEGIA :
12,30 - 15,30
19 - 23

ASTELEHENETAN
ITXITA

Noizkoa da Atxabaltako Udal Nartxiboko dokumentu zaharrena?

a.- 1698. urtekoa _____

b.- 1598. urtekoa. _____

d.- 1498. urtekoa _____

*Aurreko aleko erantzuna “Arientza aldean”.

✂

Erantzuna:


.....

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Pentekosteak

Maiatzak 28

HAURREN EUSKAL JAIA

Ekainak 3, zapatua

ROCK KONTZERTUA

Nuevo Catecismo Católico, Gnemen, Fucking What! taldeekin kontzertua. Gaueko 11etan Bideberrin.

Ekainak 4 domeka

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Goizeko 9etan txirrindulari afizionatuen Euskadiko txapelketq egongo da.

DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA

Hamabost urtetik azpiko bikoteentzat Euskadiko XVIII **DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA**ren San Martin Plazan goizeko 11,30etan. Euria bada Novedades Aretoan.

DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA

Arratsaldeko 6etan haur bikoteentzako Euskadiko XVIII. **DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA** seminarioko patioan. Udal txistulari bandak alaituta.

OÑATI



Maiatzak 28


KONTZERTUA

Oñati Abesbatza, Iraurgi Abesbatza eta Bergarako Orkestra sinfonikoak kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 7,30etan

KONTZERTUA

Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana Antzokian **"VIRTUOSOS DE MOSKU"** laukotea izango da.

ESKORATZA




Maiatzak 27

HITZALDIA

PERRETXIKO HITZALDIA egongo da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

ARRASATE



Maiatzak 28, 29

KONTZERTUA

C. Orff-en, Carmina Buraua, Errusiako orkestra nazionala eta Mondragon Abesbatzaren kontzertua egongo da Amaia Antzokian arratsaldeko 8etan.

Ekainak 1, eguena

ZINEA

"Mi pie izquierdo" filmea Amaia Antzokian egongo da gaueko 9,30etan.

Ekainak 8, eguena

ZINEA

"Europa Europa" filmea Amaia Antzokian botako dute gaueko 9,30etan.

**GUREA
TABERNA
JATETXEA**

*Durana Kalea
Ifnoa: 79 20 64*


**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Aretxabaleta

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARETXABALETA



Maiatzak 26, eguakotxa

AFARIA

Leintz udal-euskaltegiak antolatuta "Taberna Berri" jatetxean afaria izango da gaueko 9etan. Afarira orain arte ibilitako ikasle guztiak gonbidatuta daude. Ondoren erromeria **Laja eta Landakandarekin**.

Maiatzak 28, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Aramaio-Kurtzeta-Legutiano-Gasteiz-Elorriaga-Ntra. Sra. Estibalz-Gasteiz-Urbina-Aretxabaleta. Guztira 92 km. Irteera goizeko 9etan izango da Zاراia kaletik.

MENDI IRTEERA

Zاراia M.T, **VALDEREJO PARKERA** egingo du irteera.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Pedro Guenetxeari lehenengo memoriala egingo zaio datorren igandean Aretxabaletan korrituko den txirrindulari lasterketan. Bigarren urteko kadeteek korrituko dute eta rekorridua ondorengoa da: Aretxabaleta-Maxi Eroski-Epele-Kanpazar-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aretxabaleta (bariantea)-Eroski-Epele-Kanpazar-Aretxabaleta-Almen-Mugarri-Aretxabaleta. Guztira 60 Km.

Ekainak 3, zapatua

KINTO AFARIA

69an jaiotakoek kinto afaria egingo dute. Izen eman gura duenak Artano tabernan egin dezala.

Ekainak 4, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Legutiano-Otxandixo-Dima-Igorre-Amorebiete-Durango-Kanpazar-Aretxabaleta. Guztira 95 Km. Irteera Zاراia kaletik izango da goizeko 9etan.

III ARRASATE KIROLAK KROSA

Eguerdiko 12etan Eskoriatza Arrasate krosa korrituko da. Guztira 8,4 Km. izango dira.

Ekainak 9, eguakotxa

HITZALDIA

Tril emakume taldeak antolatuta **Astrologiari** buruzko hitzaldia izango da Loramendi Kultur Elkartearen. Arratsaldeko 7etan ekingo da eta Fermin Alziguren Lesakarrak emango du.

***Otala-zelai egunez giltza batzuk agertu ziren. Galdu zituena Kultur Etxera etor dadila bila.**

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



Aretxabaleta



eusko
alkartasuna *ri*

Eman zure botoa

ERANTZUNKIZUNA



ADOLFO ETXEBARRIA ALDEKOA